



Martxoaren 22ko 9/2011 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako lurralde historikoko Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duena.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Foru Dekretu osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran zerrendatu egiten dira foru dekretuak onartutako erregelamenduaren jatorrizko zenbait artikulutan aldaketak sartu dituzten xedapenak.

AURKIBIDEA

I. TITULUA	5
ONDARE ESKUALDAKETAK	5
I. KAPITULUA. ZERGA-GAIA	5
1. artikulua. Eskualdaketein parekatutako egintzak	5
2. artikulua. Akzesio printzipioa.	6
3. artikulua. Jabari aitortzak.	6
4. artikulua. Lagapen trukeko enkanteak.	6
5. artikulua. Trukaketak.	7
II. KAPITULUA. ARAU BEREZIAK	7
6. artikulua. Salmenta promesak eta kontratu aukerak.	7
7. artikulua. Transakzioak.	7
8. artikulua. Kasu bereziak.	7
III. KAPITULUA. OINARRI EZERGARRIA	8
1. SEKZIOA. Arau orokorrak.	8
9. artikulua. Erregela orokorra.	8
10. artikulua. Balizko karga kengarriak.	8
11. artikulua. Balioa atzerriko dirutan edo dibisatan.	8
2. SEKZIOA. Arau bereziak.	9
12. artikulua. Enkante publikoko eskualdaketak.	9
13. artikulua. Usufuktua.	9
14. artikulua. Jabariaren finkapena.	10
15. artikulua. Hipotekak eta fidantzak.	10
16. artikulua. Beste eskubide erreal batzuk.	10
17. artikulua. Atzera-eskuratze itunarekin egindako salmenta.	11
18. artikulua. Oinarri ezargarriari buruzko beste arau batzuk.	11
IV. KAPITULUA. ZERGA KUOTA	12
19. artikulua. Ondasunen kalifikazioa.	12
II. TITULUA	12



SOZIESTATE ERAGIKETAK	12
20. artikulua. Atzerriko sozietateak.....	12
21. artikulua. Obligazioak akzio bihurtzea.....	12
22. artikulua. Ondasun komunitateak.....	12
23. artikulua. Partaidetzako kontuak.....	13
III. TITULUA.....	13
EGIN-TZA JURIDIKO DOKUMENTATUAK	13
I. KAPITULUA. AGIRI NOTARIALAK.....	13
24. artikulua. Zergaduna.....	13
25. artikulua. Arau bereziak.....	13
26. artikulua. Maileguak.....	14
27. artikulua. Sozietate eragiketak.....	14
II. KAPITULUA. MERKATARITZA AGIRIAK	14
28. artikulua. Zergapeko merkataritza agiriak.....	14
29. artikulua. Zergaduna.....	15
II BIS KAPITULUA. EFEKTU TINBREDUNAK.....	15
30. artikulua. Efektu tinbredunen trukea.....	15
III. KAPITULUA. AGIRI ADMINISTRATIBOAK.....	15
31. artikulua. Bahitura idaztoharak.....	16
IV. TITULUA	16
XEDAPEN KOMUNAK	16
I. KAPITULUA. ZERGAREN SORTZAPENA.....	16
32. artikulua. Zergaren sortzapena.....	16
33. artikulua. Sortzapena sozietate eragiketetan.....	16
II. KAPITULUA. PRESKRIPZIOA	17
34. artikulua. Preskripzioa.....	17
V. TITULUA.....	17
ZERGAREN KUDEAKETA.....	17
I. KAPITULUA. OBLIGAZIO FORMALAK	17
35. artikulua. Autolikidazioa.....	17
36. artikulua. Aurkezpen epeak.....	17
37. artikulua. Aurkezpen eta ordainketa tokia.....	18
II. KAPITULUA. TRAMITAZIOA.....	18
38. artikulua. Tramitazioa eta aurkeztu beharreko agiriak.....	19
III. KAPITULUA. ITZULKETA.....	19
39. artikulua. Ordaindutako zergaren itzulketa.....	19
Lehenengo xedapen gehigarria. Araudiaren aipamenak.....	20
Bigarren xedapen gehigarria. Efektu tinbredunak nahitaez erabiltzea.....	20
Hirugarren xedapen gehigarria. Izatezko bikoteak.....	20

AZALPENAK

Abenduaren 30eko 18/1987 Foru Araua, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarena, Gipuzkoako Batzar Nagusiek araugintzarako ahalmena erabiltzearen seinale izan zen garai hartan, baina ez du foru arloan erregelamenduzko garapenik izan gaur arte. Egun, aldiz, erregelamendu bat behar du, azken urteotan azaleratutako arazo konplexuenei



araugintzako zehaztasun handiagoa emate aldera, hala jasotzen baitu foru arau horrek amaierako bigarren xedapenean.

Araudiaren garapen honekin lor-tzen da Zergaren foru arauan jada jasota dauden artikuluen edukia berriro ez ematea, foru arau hori erregelamendu honetan jasotako aplikazio eta interpretazio xedapenen bidez osatzeko, betiere arauan lausoago ageri diren kasuak bereziki aintzat hartuta.

Ohar orokor horiek eginda, Erregelamenduaren edukia aztertuko dugu jarraian, kontuan izanik, betiere, gutxieneko edukiak dituen erregelamendu bat denez, goian esan bezala, bere egiturak bost titulu labur baino ez dituela: I. tituluak kostu bidezko ondare eskualdeketei buruzkoa da; II. titulua, aldiz, sozietate eragiketei buruzkoa; III. titulua, bestetik, egintza juridiko dokumentatuen kontzeptuari buruzko hainbat arazori buruzkoa; IV. tituluak lehenago aipatutako zergaren hiru modalitatei buruzko xedapen komunak jasotzen dira; eta, azkenik, V. titulua zergaren kudeaketari buruzkoa da.

I. tituluaren I. Kapituluak zerga-gaiari dagokionez eskualdeketa kasuak garatzen dira, lehendik zergaren foru arauan jabari aitortzei, lagapen trukeko enkantei eta trukaketei buruz araututako alderdiak osatze aldera. II. Kapituluak, berriz, arau berezi batzuk jasotzen dira, hala nola salmenta promesei eta kontratu aukerei nahiz transakzio kasu batzuei buruzkoak. III. Kapituluak, oinarri ezargarria zehazteko arauak jasotzen dira: Batzuk izaera orokorrekoak dira, hala nola balizko kargak eta atzerriko monetan edo dibisan adierazitako balioak; beste batzuk, aldiz, izaera berezikoak dira, hala nola enkanteak, usufruktuak, jabariaren finkapena, hipotekak, fidantzak eta beste eskubide erreal batzuk. Azkenik, IV. Kapituluak zerga kuotari eragiten dion ondasun kalifikazioko erregela bat jasotzen da.

II. tituluak beste hainbat alderdi garatzen dira, atzerriko sozietatei, obligazioak akzio bihurtzeari eta ondasun komunitatei buruz –eraketa kasuetarako nahiz desegite kasuetarako–, bai eta, partaidetzako kontuen kargari dagokionez, subjektu pasiboari eta oinarri ezargarriari buruzko alderdiak ere, betiere zergaren foru arauak jasotakoa osatze aldera.

Bestetik, III. tituluak hiru kapitulu ditu, zergaren foru arauaren antzeko egitura dutenak. I. Kapituluak subjektu pasiboari eta agiri notarialetako oinarri ezargarriaren zehaztapenari buruzko alderdiak garatzen dira. II. Kapituluaren bidez, igorpen funtzioa betetzen duten agirien kontzeptuari buruzko interpretazioa osatzen da. III. Kapituluaren bidez, bahiturako prebentzio idaztoharren tributazioan oinarri ezargarria zehaztean aplikagarriak diren muga jakin batzuk garatzen dira.

IV. titulua zergaren sortzapenari eta preskripzioari buruzkoa da, eta zergaren modalitate guztiei aplikagarri zaizkien bi kapitulu ditu. I. Kapituluak, sortzapenaren aldi baterako hasiera garatzen da jabari espedienteetarako, hipoteka legerian jasotako hainbat akta eta ziurtapenetarako eta pertsona jakin baten aldeko jabari aitortzako egintzetarako, bai eta eskritura publikoa egitea beharrezkoa ez denean ere. II. Kapituluak, era berean, preskripzioa agiri pribatuetan aplikatzea garatzen da.



Azkenik, V. titulua hiru kapitulutan banatuta dago, eta zergaren foru araua zergaren kudeaketari dagokionez garatzen da. I. Kapituluaren obligazio formalak jasotzen dira, eta forma autolikidazioa nahiz aurkezpen eta ordainketa epe eta tokiak zehaztuz garatzen da. Tramitazioa eta aurkeztu beharreko agiriak II. Kapituluaren garatzen dira; bereziki aipatzekoa da subjektu pasiboek autolikidazioa berriro aurkezteko obligazioa, aurreko autolikidazio batean zergaren salbuespen edo murrizpen bat aitortzea ekarri zuten baldintzak betetzen ez direnean. Azkenik, III. Kapituluaren itzulketa prozedura garatzen da, etxebizitza eskurapenen kasu jakin batzuetan zerga tasa murrizten denean.

Amaitzeko, erregelamendu honetan gaur egun erregelamenduzko garapenik ez duen 18/1987 Foru Arauaren edukia garatzen direnez, egokitzeak jo da bere edukia berehala aplikagarria izatea.

Horiek horrela, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorriz, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau,

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzea.

Gipuzkoako lurralde historikoko Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen da, abenduaren 30eko 18/1987 Foru Araua, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarena, garatze aldera, eta foru dekretu honen eranskin gisa sartzen da.

XEDAPEN INDARGABE-TZAILEA

Foru dekretu hau indarrean sartzen denean, indargabeturik geratuko dira bertan ezarritakoarekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Amaierako lehen xedapena. Arauak emateko ahalmena.

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak beharrezkoak diren xedapenak eman ahal izango ditu Foru Dekretu hau eta bertan onartzen den erregelamendua garatu eta aplikatzeko.

Amaierako bigarren xedapena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.



ERANSKINA

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ONDARE ESKUALDAKETEN ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINEKO ZERGAREN ERREGELAMENDUA

I. TITULUA

ONDARE ESKUALDAKETAK

I. Kapitulua. zerga-gaia

1. artikulua. Eskualdaketeekin parekatutako egintzak.

1. Zergaren foru arauak 7. artikulua 2. apartatua xedatutakoaren ondorioetarako, arau hauek aplikatuko dira:

1.a.¹ Ezkontide alargunari, izatezko bikote lagunari edo zati alikuotaren jaraunsle edo legatadun bati edo gehiagori ohiko etxebizitzaren edo baserriaren eta bertako lurren eta lur erantsien gehiegizko adjudikazioak egiten bazaizkie, adjudikazio horiek ez dira ondare eskualdaketat hartuko haien balioa, jarauntsi osoaren aldean, handiagoa bada adjudikaziodunaren jarauntsiko kuota baino.

2.a. Ez dira zergapetuko Hipoteka Legearen Erregelamenduak 298. artikulua 3. apartatua dena delako elementuaren azaleraz aipatzen duen zuzenketa soil bati dagozkion edukiera-soberakinak.

Aurreko paragrafoan jasotakoarekin batera, edukiera soberakinak aitor-tzeko erabilitako eskritura publikoen lehen kopiak zergapetuko dira zerga honen egintza juridiko dokumentatuen modalitateko agiri notarialen kuota mailakatuari jarraituz, zergaren foru arauak 29. artikulua 1. apartatua horretarako ezarritako irizpideak bete-tzen direnean.

3.a. Ondare eskualdaketat hartuko dira sozietateak desagitean edo beren kapitala murriztean horren ekarpena egin zuenaz besteko bazkide bati egiten zaizkion ondasun higiezinaren esleipenak, baldin eta higiezinaren ekarpen datatik

¹ Zenbaki hau abenduaren 3ko 55/2024 Foru Dekretuaren 4. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen maiatzaren 10eko 1/2024 Foru Arauaren aldaketa batzuk eta zerga arloko beste arau batzuk erregelamendu bidez garatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunean sartzen da indarrean (2024/12/5eko GAO).



sozietatea desegin edo horren kapitala murrizten den arte hiru urte baino gutxiago igarotzen badira.

Ea berean, letra honetan jasotakoa aplikatzea bidezkoa denean, ez da ondasun higiezin horien balioa kontuan hartuko dena delako sozietatearen desegiteari edo kapitala murrizteari dagokion oinarri ezargarria ezartzean, zergaren foru arauak 23. eta 24. artikuluetan jasotako sozietate eragiketen gaineko kargaren ondorioetarako.

Kasu horietan, ondasun higiezin horien balioa zergaren oinarri ezargarria izango da kostu bidezko ondare eskualdaketen modalitatean, erregelamendu honek 18. artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, eta zergaren foru arauak 11. artikulua 1. apartatuaren a) edo b) letran jasotakoari jarraituz.

2. Heriotzak eragindako oinordetzetan, esleipen soberakinak kostu bidezko ondare eskualdaketa gisa likidatuko dira, baldin eta herentzia tituluari dagokionez diferentziarik badago, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren ondorioetarako aitortutako balioaren arabera, oinordekoei edo legatudunei egindako esleipenetan.

2. artikulua. Akzesio printzipioa.

Ulertu behar da eraikin bat duten lursail edo orubeen salerosketetan eta kostu bidezko gainerako eskualdaketen lurzorua nahiz hegala sartzen direla, salbu eskualdatzaileak hori beretzat gordetzen badu edo eskuratzaileak frogatzen badu eraikinaren jabaria beste edozein titulu bidez eskuratu zuela.

3. artikulua. Jabari aitortzak.

Jabetzaren edo beste eskubide baten aitortza, betiere horren onuradun den pertsonaren mandatarari edo kudeatzaile gisa egiten bada, aitortza horretan aipatutako ondasunen eskurapena egiaztatzean, benetako eskualdaketatzat hartuko da, baldin eta izaera eta zirkunstantzia haiek ez badaude legezko forma batean jasota ahalordez edo mandatuz ustez egin den eskurapenaren tituluan edo frogagirian. Horrek ez du kentzen, dena den, mandatarari edo kudeatzaile gisa egindako jarduketa beste frogabide batzuk erabilita frogatzea.

4. artikulua. Lagapen trukeko enkanteak.

1. Ondasuna enkante judizial batean besterentzen bada eta errematea esleitzen zaion eskaintzaileak enkantearen egintzan erabili badu errematea dena delako enkantearen arauetan ezarritako baldintzetan lagatzeko eskubidea, eskualdaketa bakar bat likidatuko da lagapen hartzailearen alde. Baldin eta errematea lagatzeko eskaintza egin izanaren aitorpena enkantea egin ondoren gauzatzen bada, ez da aplikatuko apartatu honetan jasotakoa, eta bi eskualdaketa desberdin likidatuko dira: Bata errematearen esleipen hartzaileari eta bestea, aldiz, haren lagapen hartzaileari.

2. Baldin eta ondasuna enkante administratibo edo notarial batean besterentzen bada, bi likidazio desberdin egingo dira beti: Bata errematearen esleipen hartzaileari eta bestea, aldiz, haren lagapen hartzaileari, salbu hura lagatzeko baldintzapean esleitzen bada dena delako enkantearen araudian ezarritako



baldintzei jarraituz; azken kasu horretan, eskualdaketa bakar bat likidatuko zaio errematearen lagapen hartzaileari.

5. artikulua. Trukaketak.

Ondasun edo eskubideak trukatzean, trukatzaille bakoitza zergapetuko da horrek erosten dituenen balio egiaztatuaren arabera, salbu balio aitortua handiagoa bada, eta eskuratutako ondasun eta eskubideen izaera higigarri edo higiezinari dagokion karga tasa aplikatuko da.

II. kapitulua. Arau bereziak

6. artikulua. Salmenta promesak eta kontratu aukerak.

Ondasunen salmenta promesa eta edozein izaeratako kontratu aukera, kostu bidez egin direla ulertuko da beti, eta zergaren foru arauaren 15. artikulua 2. apartatua ezarritako baldintzetan sortuko dute zerga.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoaz gain, salerosketaren edo kontratuaren zerga ordaindu beharko da, kontratua gauzatzen denean.

7. artikulua. Transakzioak.

1. Transakzioa zergaren ondorioetarako halakotzat hartua izan dadin, ezinbestekoa da dena delako demanda arrunta aurkeztu ondoren gauzatzea. Beraz, baldin eta arazoak ez badu hartu benetako auziaren izaera eta eskubideen aitortza edo lagapena aldean arteko hitzarmen publiko edo pribatuz egiaztatzen bada, aurreko prozedura judizialak irekitzearen ondorioz izan gabe, aipatutako eskubideak egintza horien kontzeptu juridikoaren arabera likidatuko dira, kontratuari jarraituz, alde batera utzita aldeek transakzioaren oinarri gisa alegatzen duten titulua.

2. Baldin eta transakzioan auzitik kanpoko prestaziorik gertatzen bada –hala nola pentsioen eraketa, eskubide errealean aitortza, eskudiruaren entrega, ondasun aldaketa edo trukaketa nahiz beste prestazio batzuk (demanda aurkeztean erabili den egintzaren edo tituluaren izaera, transakzioaren gai diren ondasun edo eskubide erreal guztiei edo zati bati dagokienez, aldatzen dutenak)–, dena delako kontzeptuagatik likidatuko da zerga, egintza edo titulu hori baztertuta.

3. Prestazio horien ondorioz demandaren oinarri den egintza edo tituluaren izaera aldatzen denean, ondasunen zati bati dagokionez, beste zati bati dagokionez aldatu gabe, horietako bakoitzaren zerga likidatuko da, aurreko apartatua jasotakoaren arabera.

4. Transakzioaren efektuaren ondorioz, ondasunak edo eskubide errealak aurretik zeuzkanaren esku geratzen direnean, auzian erabilitako titululari jarraituz, edukitzaileak ez du ordainduko zerga, baldin eta behar bezala frogatuta geratzen bada jabaria edo edukia eskuratu zuenean ordaindu zuela.

8. artikulua. Kasu bereziak.



1. Salerosketa eta hipoteka legeriaren arabera horren parekoak diren gainerako kontratuak baliogabetzeko baldintza espresu baten ondorioz jabaria berreskuratzeak ez du ekarriko likidazioa kostu bidezko ondare eskualdaketa modalitatean egitea, ondorio horietarako horrelakotzat hartzen duen ebazpen judizial edo administratibo bat behar izan gabe.
2. Aurreko apartatuan jasotakoa aplikatuko zaie, era berean, desjabetzapena justifikatzen duten helburuak ez betetzearen ondorioz jabaria desjabetuari itzultzeagatik gertatzen diren eskualdaketei ere.

III. kapitulua. Oinarri ezergarria

1. SEKZIOA. Arau orokorrak.

9. artikulua. Erregela orokorra.

1. Zergaren foru arauak 10. artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, eskualdatutako ondasunen eta eskubideen balio erreala finkatze aldera, karga hauek izango dira kengarriak: Behin betikoak, behin-behinekoak edo berreroztekoak diren eta ondasunei eragiten dieten eta horien gainean zuzenean ezarriak azaltzen diren kargak. Ildo horretan, benetan eskualdatutako ondasunen kapitala edo balioa murrizten duten kargak hala nola, zentsuak eta pentsioak izango dira kengarriak. Ez dira halakotzat hartuko eskuratzailaren betebeharrak pertsonalak diren kargak, ez eta ordaindu beharreko prezioa jaistearen ekarri baina ez eskualdatutakoaren balioa jaisten ez dutenak, nahiz eta bahituraz edo hipotekaz bermatuta egon.
2. Agirietan ez bada berariaz azaltzen kengarriak diren pentsio, karga edo zergen iraupena, mugagabetzat joko da.
3. Zentsuaren balioa, eskualdatutako ondasunetan kengarria izateko, berrosteko eman behar den kapitalarena izango da, Zuzenbide Zibilaren arauari eta, hala badagokio, foru legeria aplikagarri jarraituz.
4. Pentsioa iraungitzean edo zentsua berreroztean, ondasunen eskuratzailak erosketaren unean indarrean zegoen zergaren arabera kendutako kapitalari dagokion zerga ordaindu beharko du.

10. artikulua. Balizko karga kengarriak.

Karga guztiak, kengarriak izan ala ez, interesatuek prezioa finkatzean jaitsi zituztela joko da eta, ondorioz, balio aitortua zehazteko, kengarri izaera ez duten kargen zenbatekoa gehituko zaio prezioari, aurreko artikuluen arabera, salbu eta kontratatzaileek berariaz hitzartzen badute finkatutako prezioari karga horiek kentzea, edo eskuratzailak prezioaren zati bat gordetzen badu karga horiek ordaintzeko.

11. artikulua. Balioa atzerriko dirutan edo dibisatan.

1. Ondasunen edo eskubideen balioa euroa ez den diru edo dibisa batean finkatuta baldin badator, balio aitortutzat hartuko da sortzapenaren unean



indarrean dagoen salmentako kanbio tasa (Europako Banku Zentralak berez edo Espainiako Bankuaren bitartez finkatutakoa, edo Europako Banku Zentralak kontuan hartzen dituenetarikoak ez diren diruei buruz Espainiako Bankuak finkatutakoa) aplikatuta ateratzen dena. Salbuespen gisa, benetan ordaindutakoa handiagoa baldin bada, azken kopuru hori hartuko da.

2. Balioa bietan finkatuta badago, eurotan eta diru edo dibisa atzerritarretan, bataren eta bestearen artean baliorik handiena duena hartuko da, aurreko apartatuan erreferentzia egiten zaion arauari jarraituz eginda.

3. Balioa diru edo dibisa atzerritarretan finkatua badago, aurreko 1. apartatuan aipaturiko bankuek finkatutako salmenta kanbioa izan ezean, merkatuan duen balioa erabiliko da.

2. SEKZIOA. Arau bereziak.

12. artikulua. Enkante publikoko eskualdaketak.

Enkante publiko bidez –notariala, judiziala edo administratiboa– egindako eskualdaketetan, oinarri gisa erabiliko da errematearen prezioa, esleipen hartzaileak bere gain hartzen dituen kargak gehituta.

13. artikulua. Usufruktua.

1. Zergaren foru arauak 10. artikulua 2. apartatuko a) letran jasotakoaren ondorioetarako, aldi baterako usufрукtuaren balioa zenbatzeko, ez dira kontuan hartuko urtebete baino gutxiagoko denbora tarteak, eta urtebete baino gutxiagorako usufрукtuan ondasunen balioen 100eko 5 kontatuko da.

2.² Horren ondorengo usufрукtuetan, jabetza soilaren balioa kalkulatzeko, portzentajerik handieneko usufрукtua hartuko da kontuan, eta, usufрукtu hori iraungitzean, jabetza soilak duen balio igoerari dagokiona ordainduko du jabe soilak, eta horrela egingo da, hurrenez hurren, gainerako usufрукtuak iraungitzean. Arau bera aplikatuko da usufрукtua bi ezkontideen edo izatezko bikoteko bi kideen alde eratuta dagoenean aldi berean, baina jabariaren kontsolidazioak dakarren likidazioa azkena hiltzen denean bakarrik egingo da.

3. Jadanik onartu den usufрукtuari uko egiteak, nahiz eta huts eta soila izan, usufрукtudunak jabe soilari egindako dohaintzat hartuko da, zerga ondorioetarako.

4. Usufрукtu usufрукtudunaren bizitza ez den baldintza suntsiarazlearekin eratu bada, biziarteko usufрукtuetarako ezarritako arauari jarraituz likidatuko da. Baldintza bete eta gero, beste likidazio bat egingo da, aldi baterako usufрукturako ezarritako arauari jarraituz, eta zuzenketak egingo dira, dela zerga Administrazioaren alde dela interesatuaren alde.

² Apartatu hau abenduaren 3ko 55/2024 Foru Dekretuaren 4. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen maiatzaren 10eko 1/2024 Foru Arauaren aldaketa batzuk eta zerga arloko beste arau batzuk erregelamendu bidez garatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunean sartzen da indarrean (2024/12/5eko GAO).



14. artikulua. Jabariaren finkapena.

1. Jabaria finkatzen denean, jabe soilak haren ondarean sartzen den eskubidearen balioaren arabera ordainduko du zerga hau.
2. Kostu bidezko tituludun jabari zatitua finkatzerakoan, betiere finkapena araututako epea bete delako edo usufruktuduna hil delako egiten bada, jabe soilari exijituko zaio, bere garaian jabetza soil eskuratu zuen kontzeptu eta titulu berberengatik, jabetza soil eskuratu zenean zergapetu gabe geratutako portzentajetik usufruktuaren iraungipenari dagokion likidazioa ordaintzea, eta portzentaje hori jabaria finkatu zenean ondasunek zuten balioari ezarriko zaio une horretan indarrean dagoen karga tasaren arabera.
3. Finkapena beste negozio juridiko batengatik egiten bada, jabe soilari aurreko apartatuan aurreikusitako likidaziorik handiena ordaintzeko exijituko zaio, baita usufruktua iraungitzearen arrazoi den negozio juridikoari dagokiona ere.
4. Finkapena usufruktudunarengan egiten bada, horrek ordaindu beharko du bera jabe soil bihurtzen duen negozio juridikoari dagokion likidazioa.
5. Finkapena beste hirugarren batengan egiten bada, aldi berean usufruktuko eta jabetza soilko eskubideak eskuratuko ditu, eta mota horretako eskurapenei dagozkien likidazioak bakarrik egingo dira.
6. Erabilera eta bizileku eskubideak iraungitzean, usufruktudunari (halakorik baldin badago) zerga exijituko zaio, usufruktuaren balioaren gehikuntzaren arabera. Usufruktu hori existitzen ez bada, eskubide horiek iraungitzeari dagokion likidazioa kobratuko zaio jabe soilari. Erabilera eta bizileku eskubideak baino lehenago iraungitzen bada usufruktua, orduan, jabe soilak dagokion likidazioa ordainduko du, usufruktu eskubide hori iraungitzeak dakarren finkatze partzialarengatik, jabetza soilaren balioak iraungitze horren ondorioz izaten duen gehikuntzari dagokionez.
7. Jabari zatituaren finkapena kostu gabea izan bada, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren arauak izango ditu araubide.

15. artikulua. Hipotekak eta fidantzak.

1. Zergaren foru arauak 10. artikulua 2. apartatuko c) letran jasotakoaren arabera, mailegu baten berme gisa eratutako hipotekak deuseztatzean, zergaren foru arauak 29. artikulua 2. apartatuan jasotako egintza juridiko dokumentatuen karga mailakatuaren ondorioetarako kontuan hartu beharreko oinarri ezargarria bat etorri behar da mailegu bermatua eratzean zergapetutako zenbateko berarekin. Hala badagokio, oinarri ezargarri hori hasieran hipoteka bidez bermatuta eratutako maileguari eragiten dioten gehikuntza edo deuseztapen partzialen zenbatekoan gehitu edo murriztuko da, hurrenez hurren.
2. Zergapeko fidantzetan ez da sartuko oinarri ezargarrian dena delako maileguak fidantzak eratzeke datan duen zenbateko amortizatua.

16. artikulua. Beste eskubide erreal batzuk.



Zergaren foru arauak 10. artikulua 2. apartatuko d) apartatuan jasotakoa aplikatuko zaie, bereziki, eskubide erreal hauei:

- a) Lurrazal eskubideari.
- b) Zortasun errealei.
- c) Zentsuei.

17. artikulua. Atzera-eskuratzeako itunarekin egindako salmenta.

1. Zergaren foru arauak 15. artikulua 3. apartatuan jasotakoaren ondorioetarako, baldin eta ezarritako edo legezko epea amaitzeagatik atzera eskuratzeako eskubidea iraungitzen bada, ondasunak eta eskubideak eskuratzen dituenak edo bere kausadunek likidazioa aurkeztu behar dute, lehenago egindako likidazioaren oinarriaren eta ondasunen balio egiaztatu osoaren arteko diferentzia hartuta oinarritzat, halakorik badago.
2. Horretarako, eskualdaketa berriaren kontzeptuan likidatuko da zerga, baldin eta, atzera eskuratzeako eskubidea erabiltzean ezarritako epea amaitu ondoren eta, edonola ere, hamar urte pasatu ondoren kontratuaren datatik edo horri aplikatu dakioken legeria zibilean finkatutako denboratik, edo, horrelakorik ez badago, Kode Zibilaren 1508. artikuluan ezarritakoaren arabera.
3. Atzera-eskuratzea egin daitekeen luzapen aldiaren ez da zergapetuko kostu bidezko ondasun eskualdaketen modalitatean, nahiz eta, bidezkoa denean, zergak ordaindu beharko dituen egintza juridiko dokumentatuen karga mailakatu.
4. Legezko atzera-eskuratzearen bidez finka edo eskubide erreal bat eskuratzen duenak zerga ordaindu ez dezan, baldin eta erosleak edo atzera eskuratzen duenaren erosleak dagoeneko ordaindu badu, zerga Administrazioak atzera-eskuratzea bidezkoa den edo ez kalifikatuko du, atzera eskuratzen duenak demanda judizialik aurkeztu behar izan gabe.

18. artikulua. Oinarri ezargarriari buruzko beste arau batzuk.

1. Kredituak, eskubideak edo akzioak eskualdatzean, horiek gauzatuz zenbatetsi daitezkeen ondasun jakin batzuk lortzen direnean, haien balioa jasota azaltzen ez bada, behin-behineko likidazio bat egingo da, hamar eguneko epean, interesatuek Administrazioaren eskariz aitortzen duten balioaren gainean. Horrek ez du kentzen, eskualdatutako eskubideen benetako balioaren soberakinaren gainean ere likidazio bat egitea, halakorik badago, eskubideen bitartez lortzen den ondasunen balioa ezagutzen denean, hori gauzatzearen ondorioz; orduan, behin betiko likidazioa egingo da.
2. Zehaztutako epean interesatuak ez badu balio aitorpena egiten, Administrazioak hori finkatu eta likidazioa egingo du, erreklamazioak aurkeztea eragotzi gabe. Administrazioak inondik inora ezin badu eskualdatutako eskubide eta akzioen balioa finkatu, likidazioa atzeratuko da, eta horrela adieraziko da agiriaren amaieran jarritako ohar batean.



IV. kapitulua. Zerga kuota

19. artikulua. Ondasunen kalifikazioa.

Zergaren forua arauak 11. artikulua 3. apartatuan jasotakoaren ondorioetarako, ondasun higieztatzat hartuko dira beren xedea eta egoera dela-eta ibai, aintzira edo itsasertz bateko puntu finko batean gordeta dauden urontziak.

II. TITULUA

SOZietate ERAGIKETAK

20. artikulua. Atzerriko sozietateak.

1. Gipuzkoan kokatutako sukurtsal edo establezimendu iraunkorren bidez beren jardunari lotutako eragiketak Estatu espainiarreko lurraldean egiten dituzten entitateen kasuan, eta beren helbide soziala eta benetako zuzendaritzako egoitza Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetan daudenean, entitate horiek beharturik daude Estatu espainiarreko lurraldean egoitza duten entitateek ordaindu beharreko kontzeptu eta baldintza berberetan tributatzera, aipatu eragiketei destinaturiko kapitalari dagokionez.

2. Aurreko apartatuan aipaturiko entitateek espresuki zehaztu beharko dute, eragiketa horiek egitera zuzendutako sozietate akordioa jasotzen duen agirian, Espainiako lurraldean egitekoak diren eragiketetara bideratzen duten ondare zuzkidura. Hala egiten ez badute edo zehaztutako zifra txikiagoa bada, ekarritako kapitala zehazteko oinarritzat hau hartuko da: Espainiako lurraldean eta hortik kanpo egindako jarduerak konparatuz ateratako negozio zifra erlatiboari dagokiona. Horrela lortutako portzentajea sozietatearen kapital fiskalari aplikatuko zaio (kapital fiskal hori Sozietateen gaineko Zergaren arauari jarraituz zehaztuko da). Ateratako zifra likidazioak egiteko oinarritzat erabiliko da.

21. artikulua. Obligazioak akzio bihurtzea.

Zergaren foru arauak 18. artikulua 1. apartatuan jasotakoaren ondorioetarako, obligazioak akzio bihurtzea sozietate eragiketen modalitatean zergapetuko da, kapitala handitzeagatik.

22. artikulua. Ondasun komunitateak.

1. Bi pertsonak edo gehiagok ondasunak zatitu gabe eskuratu izana dokumentatzen duten agirietan edo eskrituretan eskuratutako ondasunekin jarduera enpresarialak egiteko xedea jasota ageri denean, zergaren likidazioaren ondorioetarako ulertuko da, eskurapena alde batera utzita, sozietate eragiketen modalitateari atxikitako ondasun komunitatea eratzeo konbentzio bat badela.

2. Urontzi baten partaidetza zatitu gabeen salmenta, saltzaileak beste bat edo batzuk gorde ditzakeelarik, sozietate eraketaren kontzeptupean likidatuko da, eskualdaketatik bidezkoa den likidazioa alde batera utzita.



3. Eraketaren momentuan aurreko apartatueta jasotakoaren arabera zergapetuta geratzen diren komunitateen desegitea sozietate desegitetzat joko da zergaren ondorioetarako, eta likidazioa egitean komunitateko kide bakoitzari esleitutako ondasunen, eskubideen edo zatien zenbatekoa hartuko da kontuan.

Enpresa jarduerarik izan ez duten komunitateen desegiteak, betiere esleipenek titulartasun kuoten beharrezko proportzioa gordetzen badute, kasu horretan, egin-tza juridiko dokumentatuengatik bakarrik ordaindu beharko dute zerga.

23. artikulua. Partaidetzako kontuak.

1. Partaidetzako kontuen kontratua egitean, bazkide kudeatzailea izango da subjektu pasiboa. Kontratua amaitzean, aldiz, negozioko partaidea izango da subjektu pasiboa.

2. Partaidetzako kontuen kontratua egitean, merkatariak beste merkatari batzuen emaitza on edo txarretatik lortuko zuen kapital adostuaren zatia oinarritzat hartuta ordainduko du zerga.

III. TITULUA

EGIN-TZA JURIDIKO DOKUMENTATUAK

I. kapitulua. Agiri notarialak

24. artikulua. Zergaduna.

1. Subjektu pasiboa ondasun edo eskubidearen eskuratzailerak izango da eta, horrelakorik ez badago, agiri notarialak premiatu edo eskatzen dituzten pertsonak edo, bestela, luzatutako agirien interesatuak.

2. Berme eratua duten mailegu eskriturak direnean, mailegu hartzailea hartuko da eskuratzailerat.

3. Agiri berak zergapeko egin-tza edo negozio juridiko batzuk jasotzen dituenetan zergaren foru arauak 29. artikulua 2. apartatuan jasotakoari jarraituz, horietako bakoitzerako zehaztuko da nor den zergaren subjektu pasiboa.

25. artikulua. Arau bereziak.

1. Finken taldekatzeen, gehitzeen eta bereizketen eskrituretan, oinarri ezargarria, hurrenez hurren, taldekatutako finken balioak, handiagoa den bati gehitutako finkarenak eta beste batetik banatzen den finkaren balioak osatuko du.

2. Finken zatiketetan, oinarri ezargarria finka zatituen balioa izango da.

3. Obra berriaren aitorpenaren eskrituretan, aitortzen den obra berriaren kostuaren balio erreala izango da oinarri ezargarria.



4. Jabetza horizontaleko eraikinen eratze eskrituretan, oinarri ezargarria obra berriaren kostuaren balio errealak eta lursailarenak osatuko dute.

26. artikulua. Maileguak.

Zergaren foru arauak 29. artikulua 2. apartatuan jasotakoaren ondorioetarako, hipoteka eskubidearen aldaketa gisa zergapetuko dira egintza hauek: Zergapeko higiezin zatitzen den zati, pisu edo lokalen artean hipoteka banatzea, karga eragindako finken artean bestela banatzea edo adieraztea, eta kopuru handiagoaren gainean zegoen eskubidea finka batera edo gehiagora murriztea edo, finka bat bakarrik izanez gero, horren zati bat liberatzea.

Mailegu bermatuaren zati bat ordaindu izanaren ondorioz finka bat edo gehiago edo finka baten edo batzuen zati bat besterik liberatzen ez denean, kitapen partzial gisa egingo da likidazioa. Baldin eta kitapen partzialarekin batera aurreko apartatuan aipaturiko egintzetako bat egiten bada, bidezko likidazioa egingo da, egiten diren gainontzeko aldaketen kitapen partzialari dagokionaz gain.

27. artikulua. Sozietate eragiketak.

1. Sozietateak lehenago egindako jarduerekin harremana izan edo ez izan, xede soziala osorik edo partzialki aldatzeak eragindako sozietate aldaketa dokumentatzen duen eskritura notarialaren lehen kopia ez da zergapetuko, baldin eta aldaketa ez badago zergapetuta sozietate eragiketen modalitatean, egintza juridiko dokumentatuen modalitate mailakatuan ere.

2. Bazkideei ondasunak edota eskubideak itzultzea ez ekartzeagatik sozietate eragiketen modalitateko likidazioa eragiten ez duen kapital murrizpena ere zergapetu gabe geratuko da egintza juridiko dokumentatuen modalitatean.

3. Akzioen errepresentazio modua dokumentatzen duten lehen kopiak (tituluetatik kontuko oharpenetara igarotzeko edo alderantziz) ez dira zergapetuko egintza juridiko dokumentatuen kuota mailakatuan.

II. kapitulua. Merkataritza agiriak

28. artikulua. Zergapeko merkataritza agiriak.

1. Zergaren foru arauak 30. artikulua 2. apartatuan jasotakoaren ondorioetarako, hona igorpen funtzioa betetzen duten agiriak:

a) Kanbio-ordaindukoak, salbu «agindura ez» klausularekin edo beste edozein klausula baliokiderekin luzatu direnak.

b) Agindurako txekueak edo endosatuak direnak.

c) Merkataritza trafikoan luzatutako agiriak, hain zuzen beren kabuz, hitzez hitz eta izaera autonomoz egiaztatzen dutenak legeko edukizailleak agirietan izendatutako pertsonarengandik eta, emisio lekua eta data alde batera utzita, agirian adierazitako lekua eta datan diru zenbateko jakin bat edo hori errepresentatzen duen zeinua kobratzeko duen eskubide ekonomikoa.



Aurrez ezarritakoaren ondorioetarako, agiritzat hartuko da idatzizko edozein euskarri, informatikoa barne, zerbait frogatu, egiaztatu edo agertarazten duena.

2. Igorpen funtzioa betetzen ez duten agiritzat hartuko dira zor bat kitatu dela frogatzen duten, horren zenbatekoaz informatzen duten edo aurreko apartatuko c) paragrafoan jasotzen ez den antzeko beste edozein helburu duten agiriak.

29. artikulua. Zergaduna.

1. Subjektu pasibotzat joko da, zergadun gisa, endosu bidez transmititutako txekiearen endosatzailea.

2. Igorpen funtzioa betetzen duten agirien helburua hornitzaileei ordaintzea edo bezeroei kobratzea denean, agiriak helburu horiekin zirkulazioan jartzen dituen pertsonak edo entitateak eginak izan direla ulertuko da, agirian agertzen dena kontuan hartu gabe.

II bis kapitulua. Efektu tinbredunak³

30. artikulua. Efektu tinbredunen trukea.⁴

1. Efektu tinbredunak eskuratzen dituztenek ez dute eskubiderik izango entitate saltzaileak haien zenbatekoa itzul diezaien, hura eskatzeko argudiatzen duten arrazoia edozein dela ere.

2. Efektu batzuk beste batzuekin trukatzeko onetsiko dute haiek zaintzeaz arduratzen diren entitateek eta saltokiek, kasu hauetan:

1. Mota guztietako efektu tinbredunei dagokienez, efektuok zirkulaziotik kentzen direnean, zerbitzuak hala eskatzen duelako edo zerbitzuari komeni zaiolako, betiere osorik badaude eta ez badute erabili izanaren seinalerik, kasuan kasu emandako xedapenean gaiari buruz jasotzen diren arauekin bat.

2. Notaritzako dokumentuetarako ez beste ezertarako erabiltzen den paper tinbredun arruntari dagokionez, trukea onartuko da baldin eta ekartzen den paper zatian Gipuzkoako Foru Aldundiaren folio zenbakia eta tinbrea ageri badira.

3. Kanbio letren kasuan, trukea onartuko da baldin eta haien gainean idaztean erabilezin geratzen badira eta josi izanaren seinalerik ez badute, eta haietan inolako errubrikarik, izenperik, edo ondorioak sortu izanaren bestelako zantzurik ageri ez bada.

III. kapitulua. Agiri administratiboak

³ Kapitulu hau, abenduaren 12ko 56/2023 Foru Dekretuaren 8. artikulua bat apartatuak gehitu du III. tituluaren barne. Aipatu foru dekretuak, zenbait zerga erregelamendu aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2023-12-18ko GAO).

⁴ Artikulu hau, abenduaren 12ko 56/2023 Foru Dekretuaren 8. artikulua bat apartatuak aldatu du. Aipatu foru dekretuak, zenbait zerga erregelamendu aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2023-12-18ko GAO).



31. artikulua. Bahitura idaztoharra.

1. Bahitura idaztoharren oinarri ezargarria inola ere ezin izango da handiagoa izan ondasun bahituen balio erreala eta bahitura idaztoharra ekarri duen kopuruaren zenbateko osoa baino.
2. Baldin eta bahitura hainbat jabetza erregistrotan idatzi behar bada eta horregatik hainbat likidazio egiten badira, horien guztien oinarri ezargarrien batura ezin izango da handiagoa izan aurreko apartatuan jarritako mugak baino.

IV. TITULUA

XEDAPEN KOMUNAK

I. kapitulua. Zergaren sortzapena

32. artikulua. Zergaren sortzapena.

1. Zerga kasu hauetan sortuko da:
 - a) Ondare eskualdaketetan, zergapeko egintza edo kontratua gauzatzen den egunean.

Horretarako, zergaren foru arauak 7. artikulua 2. apartatuko c) eta d) letretan aipatutako zerga-gaien kasuan, zergaren sortzapena testigantza, espedientearen kopia edo jatorrizkoa, akta edo ziurtagiria luzatzen den egunean gertatuko da, hurrenez hurren, edo, bestela, aitortza modu fedemaile batean egiten den egunean.
 - b) Sozietate eragiketetan eta egintza juridiko dokumentatuetan, zergapeko egintza formalizatzen den egunean edo zergaren foru arauak 37. artikuluan aipatutako agiriak eta idatziak luzatu edo formulatzen diren egunean.
2. Baldintza bat, epe amaiera bat, fideikomiso bat edo beste edozein muga dela medio eraginkortasuna etenda duten ondasun eskurapen guztiak gauzatzat hartuko dira, beti, muga horiek desagertzen diren egunean, eta data horri erreparatuko zaio bai ondasunen balioa zehazteko eta bai zerga tasak aplikatzeko.

33. artikulua. Sortzapena sozietate eragiketetan.

1. Sozietate eragiketetan zergaren sortzapena zehazteko, eskritura publikoa ematea hartuko da zergapeko egintzaren formalizaziotzat.
2. Aurreko apartatuan xedatutakoa xedatuta ere, merkataritza eta erregistro legeriak eskatzen ez duelako eskritura publikoak egitea beharrezkoa ez denean, ulertuko da zergaren sortzapena kontzeptu horregatik zergagaita eratzen duen egintza, kontratua edo agiria eman edo formalizatzen denean gertatu dela.



II. kapitulua. Preskripzioa

34. artikulua. Preskripzioa.

Preskripziorako nagusitzen den agiri pribatuaren datak erabakiko ditu, zergaren foru arauak 49. artikulua 2. apartatuan jasotakoari jarraituz, agirian jasotako egintza edo kontratuagatik bidezkoa den likidazioaren baldintzak.

V. TITULUA

ZERGAREN KUDEAKETA

I. kapitulua. Obligazio formalak

35. artikulua. Autolikidazioa.

1. Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak onartuko ditu autolikidazio ereduak.

2. Behin autolikidazioen zenbatekoa ordainduta, subjektu pasiboek zerga Administrazioan aurkeztu behar dute agiri notarial, judizial edo administratiboaren kopia kautoa –tributua sortzen duen egintza jasotzen duena–, autolikidazio bakoitzaren ale batekin batera. Agiri pribatuak direnean, bi ale aurkeztu behar dira: Jatorrizkoa eta kopia.

Egintza edo kontratua agiri batean jasota ez dagoenean, subjektu pasiboek aurkeztu behar dute, autolikidazioarekin batera, aurreko apartatuan aipatutako agiriaren ordezkotzat idatzizko aitortpen bat, zerga likidatzeko garrantzizkoak diren zirkunstantziak jasotzen dituen.

3. Likidaziorako aurkeztutako agirietan zergari lotutako ondasun edo eskubideen banakako balioa jasota ez dagoenean, interesatuek hori adierazten duen aitortpen sinatua aurkeztu behar dute. Interesatuek aurrekoa betetzen ez badute, zerga Administrazioak banakako balioak finkatu ahal izango ditu.

36. artikulua. Aurkezpen epeak.

1. Arau orokorrak:

1.a. Autolikidazioa eta agiriaren ordezkotzat agiri edo aitortpena aurkezteko epea hogeita hamar lanegun izango da, zerga-gaia gertatzen den unetik aurrera.

2.a. Agiri judizialak direnean, egintza edo kontratua ebazpen judiziala irmo bihurtzen den egunean gauzatu dela ulertuko da.

2. Arau bereziak:



1.a.⁵ Titularra hil delako sortzen diren gozamen azkentzei buruzko autolikidazioak aurkezteko epea urtebetekoa izango da, gozamenduna hiltzen den egunaren biharamunetik aurrera. Berdin dio testamentu eragiketak formalizatu diren edo ez, eta berdin dio noiz egin diren.

2.a. Ondasun eta eskubideen eskualdaketei buruz auzia sustatzen denean, ez da etengo autolikidazioa aurkezteko epea, baina subjektu pasiboak haren ordainketa geldiarazi ahal izango du, auzi demanda aurkeztzen den egunetik auzia amaitzen duen behin betiko ebazpena irmoa den egunaren biharamunera arte.

3.a. Baldin eta auzia aurkezpen epea bukatu eta gero sustatzen bada eta autolikidazioaren agiria aurkeztu ez bada, zerga Administrazioak agiriak aurkeztea eta zerga ordaintzea exijituko du, eta interesatuek beren gain hartutako erantzukizunak eskatuko ditu.

4.a. Odainketa epeen etetea ez da gertatuko auziaren gai diren ondasun eta eskubideen eskualdaketarako beste ezertarako, hau da, ez da gertatuko agiri edo eskualdaketa berean sartutako gainerako egintza, ondasun eta eskubideetarako.

5.a. Baldin eta auzi jartzaileek prozedura segitzea eskatzeari sei hilabetez uzten badiote, zerga Administrazioak autolikidazioak egitea exijitu ahal izango du, eta diru kopuruak ordaintzea ere. Auzitegiek auzia sortarazi duen eskaera iraungi dela deklaratzeko gertatzen bada, autolikidazioak egitea eta ordaintzea exijituko da, berandutza interesak eta guzti, ordainketarik gabeko autolikidazioa aurkeztu eta biharamunetik aurrera. Ondorio bera gertatuko da autoen ibilbidea eteten bada alderdien adostasunagatik.

6.a. Aurreko zenbakietan xedatutako kasuetan, zerga likidatzeko Administrazioaren egintza preskribitzeko epea etengo da, harik eta ebazpen judiziala irmo bihurtzen den egunera arte.

7.a. Artikulu honen ondorioetarako, ulertuko da auzi arazoa demanda aurkeztzen den egunean hasten dela.

37. artikulua. Aurkezpen eta ordainketa tokia.

Autolikidazioa zerga Administrazioan aurkeztu aurretik, autolikidazioaren zenbatekoa Gipuzkoako Zergabilketa Erregelamenduak jasotako entitate laguntzaileen bidez ordaindu behar da, dokumentazioarekin batera. Baldin eta autolikidaziotik ordaintzeko zerga kuotarik ez bada ateratzen, zuzenean zerga Administrazioan aurkeztu behar da autolikidazioa, dokumentazioarekin batera.

II. kapitulua. Tramitazioa

⁵ Arau berezi hau, irailaren 29ko 11/2021 Foru Dekretuaren 1. artikulua aldatu du. Aipatu foru dekretuak, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren erregelamenduak aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamuneari jarri da indarrean (2021-10-04ko GAO).



38. artikulua. Tramitazioa eta aurkeztu beharreko agiriak.

1. Zerga Administrazioak aurkezleari itzuliko dio horrek aurkeztutako agiri notarial, judizial, administratibo edo pribatuaren kopia kautotua, betiere ordaindu eta aurkeztu izanaren oharra zigilatuta. Ordaindu izanaren ohar bera egin behar da kopian ere, eta zerga kudeaketako organoan gordeko da zerga-gaia aztertu eta kalifikatze aldera.

2. Baldin eta autolikidaziotik ez bada ateratzen ordaintzeko zerga kuotarik, zerga Administrazioako organo eskudunak autolikidazioa zigilatu eta jatorrizko agirian ohar bat luzatuko du, interesatuen arabera bidezkoa den kalifikazioa jasotze aldera; gero, aurkezleari itzuliko dio eta kopia soila gordeko du, aurreko zenbakian aipatutako ondorioetarako.

3. Zerga Administrazioak agirietan jasotako zergagaiak aztertu eta kalifikatuko ditu, hala badagokio, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 121., 125. eta ondorengo artikuluetan jasotakoaren arabera bidezkoak diren behin-behineko likidazioak egite aldera.

Datu edo aurrekari berriak aurkeztea beharrezkoa denean, interesatuei hamabost eguneko epea emango zaie, haiek aurkeztu ditzaten.

4. Eskurapenaren izaera edozein izanik ere, zerga-gaia eta horren balorazioa behin betiko egiaztatu gabe egiten diren likidazioak behin-behinekoak izango dira.

5. artikulua honetan jasotakoaren ondorioz egindako likidazioak subjektu pasiboari jakinaraziko zaizkio, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 98. artikulua 2. apartatuan jasotakoa adierazita.

6. Era berean, baldin ez badira betetzen aurreko autolikidazio batean salbuespen edo murrizpen bat aitortzea ekarri zuten baldintzak, zerga honen subjektu pasiboak behartuta egongo dira autolikidazioa aurkeztera, berandutza interesak ordainduta, erregelamendu honek 36. artikuluan jarritako epe berean, ez-betetzea gertatu eta biharamunetik aurrera.

III. kapitulua. Itzulketak

39. artikulua. Ordaindutako zergaren itzulketa.

1. Lokal bat etxebizitza gisa gaitzeagatik zerga tasa murrizteari dagokionez, zergaren foru arauak 11.1 artikulua b) eta c) apartatuetan jasotako baldintzak betetzen dituzten subjektu pasiboek benetan ordaindutako zergaren eta eskuratutako ondasun higiezinari zerga tasa murriztua aplikatuz ateratzen den zenbatekoaren arteko diferentzia itzultzeko eskatu dezakete. Horretarako, autolikidazioa aurkeztu behar dute, frogagiriekin batera, erregelamendu honetako 36. artikuluan jasotako epean, exijitutako baldintzak betetzen direnetik edo, gehienez, apartatu haietan jarritako 18 hilabeteko epea amaitzen denetik aurrera.

2. Artikulu honetan aipatutako kasuetan, Administrazioak behin-behineko likidazioa egingo du, hala badagokio, autolikidazioa aurkeztu ondorengo sei



hilabeteen barruan. Dena dela, eskaera hori epe horretatik kanpo aurkeztu denean, sei hilabeteak aurkezpen egunetik aurrera zenbatuko dira.

Behin egiaztatuta tasa murriztua aplikatzeko jarritako baldintzak bete direla, zerga Administrazioak itzulketa egingo du. Dena den, horrek ez du kentzen geroago behin-behineko edo behin betiko likidazioak egin ahal izatea.

Apartatu honetako lehen paragrafoan jarritako epea iraganez gero zerga Administrazioari leporatu dakioken arrazoiagatik itzulketaren ordainketa agindu gabe, itzultzeko dagoen kopuruari martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 26. artikulua 6. apartatuan aipatutako berandutza interesa aplikatuko zaio, epe hori amaitu eta biharamunetik hura ordainketa agindu arte, subjektu pasiboak horrelakorik erreklamatu beharrik gabe.

Lehenengo xedapen gehigarria. Araudiaren aipamenak.⁶

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren araudian Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruz egiten diren aipamenak Kanarietako Zeharkako Zerga Orokorriari buruzkoak direla ulertuko da, betiere horren aplikazio eremuaren barruan.

Bigarren xedapen gehigarria. Efektu tinbredunak nahitaez erabiltzea.⁷

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabaki ahal izango du ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari lotutako egintza eta kontratuetan efektu tinbredunak nahitaez erabiltzea zerga hori ordainarazteko, zergaren foru arauak eskudirutan ordaintzea ezartzen duenean izan ezik.

Hirugarren xedapen gehigarria. Izatezko bikoteak.⁸

Erregelamendu honen ondorioetarako, izatezko bikoteei egiten zaizkien erreferentziak zergaren foru arauaren bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera interpretatuko dira.

⁶ Xedapen gehigarri honen ordinala, abenduaren 12ko 56/2023 Foru Dekretuaren 8. artikulua bi apartatuak aldatu du. Aipatu foru dekretuak, zenbait zerga erregelamendu aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2023-12-18ko GAO).

⁷ Xedapen gehigarri hau, abenduaren 12ko 56/2023 Foru Dekretuaren 8. artikulua bi apartatuak gehitu du. Aipatu foru dekretuak, zenbait zerga erregelamendu aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2023-12-18ko GAO).

⁸ Xedapen hau abenduaren 3ko 55/2024 Foru Dekretuaren 4. artikuluko hiru apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen maiatzaren 10eko 1/2024 Foru Arauaren aldaketa batzuk eta zerga arloko beste arau batzuk erregelamendu bidez garatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunean sartzen da indarrean (2024/12/5eko GAO).



ALDAKETAK

Honako zerrendan foru dekretuak onartzen duen erregelamenduak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- **11/2021 Foru Dekretua, irailaren 29koa, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren erregelamenduak aldatzen dituen (2021/10/04ko GAO).**
 - Bere 1. artikuluko 36. artikuluan 2. apartatuko 1. arau berezia aldatu du.
- **56/2023 Foru Dekretua, abenduaren 12koa, zenbait zerga erregelamendu aldatzen dituen (2023/12/18ko GAO).**
 - Bere 8. artikuluko honako aldaketak onartzen ditu erregelamenduan:
 - Bat apartatuak II bis kapitulua gehitzen dio III. tituluari, 30. artikulua izango duena, eta aipatutako 30. artikulua aldatzen du.
 - Bi apartatuak, xedapen gehigarri bakarra lehen xedapen gehigarri bihurtzen du, eta bigarren xedapen gehigarri bat gehitzen du.
- **55/2024 Foru Dekretua, abenduaren 3koa, 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen maiatzaren 10eko 1/2024 Foru Arauaren aldaketa batzuk eta zerga arloko beste arau batzuk erregelamendu bidez garatzekoa (2024/12/5ko GAO).**

Bere 4. artikuluko aldaketa hauek onartzen ditu:

 - 1.1 artikuluko 1. erregela aldatzen du.
 - 13. artikuluko 2. apartatua aldatzen du.
 - Hirugarren xedapen gehigarria txertatzen du.